Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala — Boletín Oficial de Gipuzkoa

2020ko azaroaren 24a, asteartea — 225 — Martes, a 24 de noviembre de 2020

TOKI ADMINISTRAZIOA — 3 — ADMINISTRACIÓN LOCAL

## LASARTE-ORIAKO UDALA

*Herri Galdeketarako deialdia. Alkatetzako Ebazpena*

Lasarte-Orian, bi mila eta hogeiko azaroaren hamahiruan.

Udalbatzarrak 2020ko otsailaren 14an egindako bilkuran, Lasarte-Oriako udalak gaur egungo lurpeko zabor-ontziekin zer egin behar duenari buruz herri-galdeketa egitea erabaki zuen, honako galdera honekin:

«Zer egin behar du Udalak gaur egungo lurpeko zabor-ontziekin?

— Mantendu.

— Kendu».

Udalbatzarrak bilkura berean herri-galdeketa egiteko prozedura onartu zuen.

Apirilaren 7ko Euskadiko Toki Erakundeei buruzko 2/2016 Legearen 80. artikuluan eta apirilaren 2ko Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen 7/1985 Legearen 71. artikuluak agindutakoa betez, 2020ko otsailaren 28an Estatuko Administrazioari eskaera egin zitzaion.

Ministroen Kontseiluak 2020ko ekainaren 23an baimena eman zuen Lasarte-Orian udalak gaur egungo lurpeko zabor-ontziekin zer egin behar duenari buruzko herri-galdeketa egiteko.

Azkenik, Udalbatzak, 2020ko azaroaren 12an egindako bilkuran, aipatutako herri-kontsulta deitzea onartu zuen, eta noiz egingo den zehaztu zuen.

Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legea aldatzen duen apirilaren 21eko 11/1999 Legearen 21.1 artikuluak lege horretako 71. artikuluari buruz emandako eskumenak erabilita, alkate naizen honek honako hau

EBAZTEN DUT

*Lehenik.* Udalak gaur egungo lurpeko zabor-ontziekin zer egin behar duenari buruzko herri-galdeketara deitzea, ondorengo baldintzekin:

*1. Xedea.*

Baldintza hauen helburua da Lasarte-Oriako udalerriko hondakinen zabor-ontzien egungo ereduari buruzko herri-kontsultaren prozedura-markoa diseinatzea, Erregimen Lokaleko Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legean eta Eusko Legebiltzarraren Euskadiko Instituzio Lokalei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legean eta Lasarte-Oriako Herritarren Partaidetzari buruzko Erregelamendu Munizipalean xedatutakoa betez.

*2. Kontsultaren esparrua.*

Baldintza hauek Lasarte-Oriako udalerrian izango dira aplikatzekoak, eta zabor-ontziei buruzko herri-kontsulta aurrera eramateko bakarrik.

*3. Kontsultaren instrukzio-organoa.*

Barne-erregimenaren, Herritarren Parte-hartzearen eta Gardentasunaren Batzordea izango da kontsultaren instrukzio-or-

## AYUNTAMIENTO DE LASARTE-ORIA

*Convocatoria de Consulta Popular. Resolución de Alcaldía*

En Lasarte-Oria, a trece de noviembre de dos mil veinte.

El Ayuntamiento Pleno, en sesión celebrada el 14 de febrero de 2020, acordó celebrar una consulta popular en el municipio de Lasarte-Oria sobre los contenedores soterrados de recogida selectiva de residuos en los siguientes términos:

«¿Qué debe hacer el Ayuntamiento con los actuales contenedores soterrados?

— Mantenerlos.

— Suprimirlos».

El Pleno municipal en la misma sesión aprobó el procedimiento para realizar la consulta popular.

En cumplimiento de lo preceptuado en el artículo 80 de la Ley 2/2016, de 7 de abril, de Instituciones Locales de Euskadi y artículo 71 de la Ley 7/1985, de 2 de abril, Reguladora de las Bases de Régimen Local, con fecha 28 de febrero de 2020, se presentó la solicitud ante la Administración del Estado.

Con fecha 23 de junio de 2020 el Consejo de Ministros autorizó la realización de una consulta popular sobre qué debe hacer el Ayuntamiento con los actuales contenedores soterrados, si mantenerlos o suprimirlos, en Lasarte-Oria.

Finalmente, el Pleno Municipal, en sesión celebrada el 12 de noviembre de 2020, aprobó que se convocara la referida consulta popular, fijando la fecha de su celebración.

En virtud de las facultades conferidas por el artículo 21.1 de la Ley 11/1999, de 21 de abril, por la que se modifica la Ley 7/1985, de 2 de abril, Reguladora de las Bases del Régimen Local y en relación al artículo 71 de este último texto normativo.

RESUELVO

*Primero.* Convocar Consulta popular sobre sobre los contenedores soterrados de recogida selectiva de residuos en los siguientes términos:

*1. Objeto.*

El objeto de estas condiciones, es diseñar el marco procedimental de la consulta popular sobre el modelo actual de contenedores de residuos en el municipio de Lasarte-Oria, ajustándose a lo dispuesto tanto en la Ley 7/1985, de 2 de abril, Reguladora de las Bases de Régimen Local como en la Ley 2/2016 de 7 de abril, de Instituciones Locales de Euskadi del Parlamento Vasco y al Reglamento Municipal de Participación Ciudadana de Lasarte-Oria.

*2. Ámbito de la consulta.*

Las presentes condiciones serán de aplicación en el municipio de Lasarte-Oria exclusivamente para el desarrollo de la consulta popular sobre los contenedores de residuos.

*3. Órgano instructor de la consulta.*

El Órgano Instructor de la Consulta será la propia comisión de Régimen Interior, Participación Ciudadana y Transparencia

EK\CV GAO-I-2020-06073

ganoa, eta batzorde horren bidez proposatuko zaizkio alkatetzari kontsulta aurrera eramateko hartu beharreko neurriak, betiere hemen adierazitako baldintzak kontuan hartuta.

*4. Botoa emateko legitimatuta dauden pertsonak.*

Herri-kontsultan parte hartzeko eskubidea izango dute 18 urtetik gorako pertsona fisiko guztiek, baldin eta botoa emateko unean beteak badituzte eta kontsultaren deialdia egiten den unean Lasarte-Oriako udalerrian erroldatuta badaude.

*5. Galderaren formulazioa.*

Galdera labur, argi eta sinple baten bidez egingo da kontsulta, herritarrek haren irismena ondo ulertu ahal izateko moduan, emandako aukeren artean bat bozkatu ahal dezaten.

Hau izango da galdera:

Zer egin behar du Udalak gaur egungo lurpeko zabor-ontziekin?

— Mantendu.

— Kendu.

*6. Izaera loteslea.*

Kontsultaren emaitza loteslea izango da, baldin eta botoa ematera deitutako herritarren % 30ek gutxienez bozkatzen badute, eta erabakia gehiengo soilaren mende geratuko da, betiere ez badago hori egitea erabat edo partzialki galarazten duen lege-araurik.

*7. Botoa emateko moduak.*

Herri-kontsultan, erregelamendu honetan ezarritako bozketa-moduen bidez antolatuko da parte-hartzea; botoa unibertsala, berdina, askea, zuzena eta sekretua izango da.

Botoa presentziala izango da, eta kontsulta-prozesuan ahalik eta parte-hartzerik eta efizientziarik handiena lortzeko ahalegina egingo da.

Hautesleak eskainitako bi aukeretako bat markatu beharko du. Horietako bat ere markatzen ez bada edo boto-azala hutsik badago, boto zuritzat hartuko da.

Baliogabeak izango dira deialdirako ezarritako ereduarekin bat ez datozen boto-orriak, aldaketak izan dituztenak edo ezarritako erantzunekin bat ez datozenak.

*8. Botoa emateko epea.*

Bozketa presentziala kontsultarako jarritako mahaietan egingo da, deialdiko ebazpenean adierazitako egunetan eta zehazturiko epearen eta ordutegiaren barruan.

Erroldako zerrendan egiaztatuko da inskripzioa.

Gutun itxi batean sartutako boto-papera boto-ontzian sartuz emango da botoa.

Botazio presentzialaren euskarri gisa, sistema informatiko bat erabiliko da.

Irisgarritasun unibertsala bermatze aldera, kontuan izango da irisgarritasunaren arloko legeria.

*9. Kontsulta-mahaiak.*

Botazioa aurrera eramateko, hainbat mahai (bost gutxienez) eratuko dira.

Deialdiari buruzko ebazpenean zehaztuko da mahaien eraketa.

Gutxienez bi lagunek (udaleko langileak) osatu beharko dituzte, eta horietako bat izango da lehendakaria.

Kontsulten instrukzio-organoak hautatuko ditu mahaietako kideak, boluntario aurkeztutako udaleko langileen artean egindako zozketaren bidez.

donde propondrán a Alcaldía las medidas necesarias para el correcto desarrollo de la consulta, conforme a estas condiciones.

*4. Personal legitimadas para votar.*

Con carácter general, tendrán derecho a participar en la consulta popular todas las personas físicas mayores de 18 años, cumplidos en el momento de la votación, que estén empadronadas en el municipio de Lasarte-Oria en el momento de la convocatoria de la consulta.

*5. Formulación de la pregunta.*

La consulta se realizará mediante una pregunta, formulada de manera concisa clara y sencilla, de manera que la ciudadanía, pueda comprender su alcance y responder mediante el planteamiento de diferentes soluciones al efecto de que el voto se remita sobre una de ellas.

La pregunta será la siguiente:

¿Qué debe hacer el Ayuntamiento con los actuales contenedores soterrados?

— Mantenerlos.

— Suprimirlos.

*6. Vinculación.*

El resultado de la consulta será vinculante siempre que voten al menos el 30 % de las personas convocadas a votar, quedando la decisión supeditada a la mayoría simple, y siempre que no exista norma legal que impidiera total o parcialmente su realización.

*7. Formas de votación.*

En la consulta popular la participación se articulará mediante las formas de votación establecidas en este reglamento; el voto tendrá la condición de universal, igual, libre, directo y secreto.

El voto será presencial y se procurará favorecer la máxima participación y eficiencia del proceso de la consulta.

El o la electora deberá marcar una de las dos opciones ofrecidas. En el caso de que no se marque ninguna de estas o el sobre esté vacío se considerará voto en blanco.

Serán nulas las papeletas que no se ajusten al modelo establecido para la convocatoria, que hayan sufrido alteraciones o que no se ajusten a las respuestas establecidas.

*8. Período de votación.*

El voto presencial se realizará ante las mesas de la consulta que se decidan, los días señalados en la resolución de la convocatoria, durante el periodo y horario establecido.

Se verificará la inscripción en la lista del padrón.

El voto se emitirá mediante papeletas y en sobre cerrado, que se introducirá en una urna.

Se utilizará un sistema informático que de soporte a la votación presencial.

Se tendrá presente la legislación en la materia de accesibilidad para garantizar la accesibilidad universal.

*9. Mesas de la consulta.*

A fin de llevar a efecto la votación se constituirán varias Mesas (al menos cinco).

Estas mesas vendrán determinadas en la resolución de la convocatoria.

Las formarán un mínimo de dos personas (personal municipal), una de las cuales ostentará la Presidencia.

La elección de los miembros de las mesas se realizará por el Órgano instructor de consultas mediante sorteo entre el personal municipal que se haya presentado voluntario.

EK\CV GAO-I-2020-06073

Udaleko talde politiko bakoitzak pertsona bat proposatu ahalko du mahaian ikuskatzaile jarduteko.

*10. Kontsulta-mahaiaren funtzioak.*

Hauek dira kontsulta-mahaiaren funtzioak:

— Erregelamendu honen arabera parte hartzeko eskubidea duten pertsonei laguntza ematea.

— Parte hartzera deitutako pertsonak identifikatzea.

— Botoa ematera deitutako pertsonen zerrenda zaintzea, botoa emateko baimena ematea eta parte-hartzaileen erregistroa eramatea.

— Erantzunen behin-behineko kontaketa publikoki egitea, eta emaitza aktan jasotzea, izandako gorabeherekin batera.

— Kontsulta aurrera eramateko beharrezkoa den materiala egon dadin zaintzea.

— Kontsulten instrukzio-organoak agindutako beste batzuk.

*11. Boto-kontaketa.*

Botoa emateko epea amaitutakoan, kontsulta-mahaiari dagokio emandako botoen kontaketa egitea eta kontsultako galderaren emaitza zein izan den adieraztea.

Kontaketa publikoa izango da.

Aktaren kopia bat emango zaio eskatzen duen ikuskatzaile bakoitzari.

*12. Emaitzen aldarrikapena.*

Kontaketa amaitutakoan, mahaietako lehendakari dihardutenek kontsulten instrukzio-organoari emango diote bozketaren akta, bai halaber izandako gorabeheren lista eta horien inguruan hartutako erabakiena.

Alkateak ekitaldi publiko baten bidez aldarrikatuko ditu emaitza ofizialak, horiek jasotzen dituenetik gehienez 7 eguneko epean.

*13. Udalaren posizionamendua emaitzari buruz.*

Botazioaren emaitza ebazten denetik edo botazioan izandako gorabeherak ebazten direnetik 90 egun naturaleko epean, organo eskumendunak publikoki eta modu arrazoituan jakinaraziko du nola inplementatuko den kontsultaren emaitza gobernuaren jardunbidean.

*14. Kontsultari buruzko informazioa.*

Lasarte-Oriako Udalak parte hartzeko prozesuaren eta horren arrazoien berri emango die herritarrei, euskarri fisiko nahiz informatikoen bidez (web-orriak, udal-bandoak, triptikoak, etab.). Euskarri horietan, transmititu beharreko informazioa egiazkoa eta neutrala izango da, eta erraz ulertzeko moduko hizkerarekin emango da.

*Bigarrena.* Herri galdeketa 2021eko apirilaren 25ean, igandean, egingo da, ordutegi honekin: goizeko 10etatik eguerdiko ordubiak arte, eta arratsaldeko 4tik 8ak arte.

*Hirugarrena.* Kontsulta-mahaien kokapenari eta kopuruari dagokienez, kontuan hartuta zer nolako egoeratan dagoen udalerria, 19-Covidek eragindako pandemiaren ondorioz, behar besteko aurrerapenarekin zehaztuko da; nolanahi ere, kontsulta egin baino gutxienez hilabete bat lehenago.

*Laugarrena.* Herri-galdeketa egiteko deialdia berehala iragarriko da Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN, udal honetako iragarki taulan, udal webgunean; eta apaimena herrian hedapen duten komunikabideetan.

Lasarte-Oria, 2020ko azaroaren 13a.—Agustin Valdivia Calvo, alkatea. (6073)

Podrán formar parte de esa mesa como interventores, una persona a propuesta de cada grupo político municipal.

*10. Funciones de la mesa de la consulta.*

Son funciones de la Mesa de la Consulta:

— Ayudar a las personas que quieren ejercer el derecho de participación que les reconoce este reglamento.

— Identificar a las personas llamadas a participar.

— Custodiar la lista de personas llamadas a votar, autorizar la emisión del voto y llevar el registro de participantes.

— Efectuar públicamente el recuento provisional de las respuestas y hacerlo constar en el Acta, junto a las incidencias producidas.

— Velar por la disposición del material necesario para llevar a cabo la consulta.

— Otras que encomiende el Órgano instructor de Consultas.

*11. Recuento de votos.*

Finalizado el período de votación, corresponde a la mesa de consulta realizar el recuento de votos emitidos y determinar el resultado con respecto a la pregunta de consulta.

El recuento será público.

Se dará una copia del Acta de sesión a cada interventor que lo solicite.

*12. Proclamación de resultados.*

Finalizado el recuento, las personas que ejerzan la presidencia de la mesa entregarán el Acta de a sesión al Órgano Instructor de Consultas, así como el listado de incidencias y de las decisiones adoptadas al respecto.

El Alcalde o Alcaldesa proclamará los resultados oficiales en un acto público, en un plazo no superior a 7 días desde su recepción.

*13. Posicionamiento del Ayuntamiento sobre el resultado.*

En un plazo de 90 días naturales desde la resolución del resultado de la votación o desde la resolución de las incidencias, el órgano competente manifestará públicamente y de forma razonada, cómo se va a implementar, el resultado de la consulta en la acción del gobierno.

*14. Información sobre la consulta.*

El Ayuntamiento de Lasarte-Oria informará a la ciudadanía tanto del proceso de participación como de los motivos del mismo mediante diferentes soportes físicos como informáticos (páginas web, bandos municipales, trípticos, etc.) en la que la información a transmitir sea veraz, neutral y con un lenguaje que sea fácil de entender.

*Segundo.* La consulta popular se celebrará el domingo día 25 de abril de 2021, en horario de 10 de la mañana a 2 del mediodía, y de 4 a 8 de la tarde.

*Tercero.* Con respecto a la ubicación y número de las mesas de la consulta, teniendo en cuenta la situación por la que se está atravesando como consecuencia de la incidencia de la pandemia provocada por el Covid-19, se determinará con la suficiente antelación y en cualquier caso con una antelación mínima de un mes con respecto a la fecha de la consulta.

*Cuarto.* Proceder a la inmediata publicación de la convocatoria de la consulta popular en BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa, en el tablón de anuncios de este Ayuntamiento, en la web municipal, con reseña de la misma en los medios de comunicación local.

Lasarte-Oria, a 13 de noviembre de 2020.—El alcalde, Agustin Valdivia Calvo. (6073)

EK\CV GAO-I-2020-06073